

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

5091

EBAZPENA, 2022ko azaroaren 15ekoa, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariarena, 2022ko ekainaren 22ko Agindua ebazten duena. Agindu horren bidez hautatzen dira, 2022ko deialdian, Ikertalent programako laguntzen onuradunen destino-zentro izango diren erakunde laguntzaileak.

2021eko martxoaren 31n argitaratu zen 115/2021 Dekretua, martxoaren 23koa, nekazaritza-, arrantza- eta elikagaigintza-sektoreko zientzia-, teknologia- eta enpresa-arloko ikertzaileentzako eta langile teknologoentzako prestakuntza-laguntzak arautzen dituen (Ikertalent programa).

Programako prestakuntza-jarduerak garatuko diren I+G+b proiektuak atxikitze-zentroetan egingo dira, eta zentro horiek zuzenbide publikoaren nahiz pribatuaren mende egon daitezke.

Zentro horiek, erakunde laguntzaile gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. tituluaren eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoaren mende egongo dira.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko ekainaren 22ko Aginduaren bidez, norgehiagoka-prozedurarako deialdia egin da Ikertalent programaren 2022ko deialdiko onuradunen destino-zentro izango diren erakunde laguntzaileak hautatzeko.

Prozedura horren bidez, zuzenbide pribatuaren mende dauden erakundeak hautatuko dira, ikertzaileentzako 9 prestakuntza-laguntza (doktoratu aurreko bekak) eta teknologoentzako 10 prestakuntza-laguntza (martxoaren 23ko 115/2021 Dekretuak arautzen dituen euskal nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreko arlo zientifiko-teknologikoan eta enpresarialean) destino-zentro gisa atxikitzeko.

Xedatutakoaren arabera, eskabideak ebaluatzeko eraturako Hautaketa Batzordeak Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariari helarazi dio bere ebazpen-proposamena, eta, proposamen hori egiteko, kontuan hartu dira aginduan ezarritako balorazio-irizpideak.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea ebazpen honen eranskinean zerrendatutako zuzenbide pribatuko erakunde laguntzaileen hautaketa, ikertzaileentzako 9 laguntza eta euskal nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreko zientzia, teknologia eta enpresa arloko teknologoentzako 10 laguntza emateko prestakuntza-jarduera garatzeko (Ikertalent programa), 2022ko deialdia.

Bigarrena.– Hautatutako proiektuen deskribapena eta destinoko zentroa ebazpen honen eranskinean daude zerrendatuta.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 15a.

Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendaria,
RAÚL PÉREZ IRACHETA.

ERANSKINA

LAGUNTZAILE HAUTATUTAKO ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDEEN ZERRENDA, BAITA HAUTATUTAKO PROIEKTUENA ERE, EAE-KO NEKAZARITZA-, ARRANTZA- ETA ELIKAGAI-SEKTOREKO ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA ENPRESAREN EREMUKO PRESTAKUNTZA-JARDUERA EGITEKO (IKERTALENT PROGRAMA), 2022KO DEIALDIA

1.– Ikertzaileentzako prestakuntza-laguntzak (doktoratu aurrekoak).

Zk.	Proiektuaren izena	Destino-zentroa
1	Cerrando la brecha entre la gestión basada en el stock y la gestión basada en el ecosistema.	Azti
2	Nuevos procesos optimizados de extracción y obtención de compuestos bioactivos a partir de subproductos alimentarios.	Azti
3	Marcado electrónico de grandes predadores para una mejor gestión pesquera.	Azti
4	Inteligencia artificial aplicado al desarrollo de soluciones de nutrición de precisión en deportistas.	Azti
5	Nuevas tecnologías y uso de «big-data» y «machine learning» como herramientas para una agricultura más sostenible..	Neiker
6	Fomento de sistemas de producción de trigo harinero más sostenible en condiciones de clima mediterráneo húmedo.	Neiker
7	La embriogénesis somática de <i>Pinus spp.</i> como herramienta para producir plantas de élite competitivas para la silvicultura.	Neiker
8	Estrategias sensoriales para favorecer la adherencia a dietas más saludables. Impacto de la modificación de diferentes modalidades sensoriales (textura, apariencia, flavor) y contexto de consumo en la percepción y selección de alimentos.	Basque Culinary Center
9	Caracterización de los impactos climáticos de los sistemas productivos de ganado rumiante en Euskadi utilizando niveles de base de emisiones.	BC3 Climate Change-Klima Aldaketa Ikergai Elkarte

2.– Teknologoentzako prestakuntza-laguntzak.

Zk.	Proiektuaren izena	Destino-zentroa
1	Alternativa para la reducción de los pérdidas y desperdicio alimentario en la CAPV.	Azti
2	Indicadores de abundancia a partir de ecosondas en FADs.	Azti
3	Comparación de métodos para la predicción operacional de distribución de peces de interés comercial en el País Vasco.	Azti
4	Nuevos sistemas avanzados de evaluación y mejora de la sostenibilidad de procesos y productos alimentarios.	Azti
5	Producción in vitro de planta forestal seleccionada asegurando la resiliencia forestal en un escenario de cambio global.	Neiker
6	Evaluación de la resiliencia de los sistemas silvopastorales en un escenario de cambio climático (CC).	Neiker
7	El efecto del grado de antropización del paisaje en la ecología de artrópodos vectores de enfermedades de interés médico-veterinario.	Neiker
8	Ganadería de precisión para la mejora de la salud, el bienestar animal y sostenibilidad en avicultura.	Neiker
9	Testeo de tecnologías del ámbito gastronómico a través de indicadores de calidad de alimentos y caracterización de nuevos desarrollos gastronómicos.	Basque Culinary Center
10	Gaztakal estudio de los parámetros tecnológicos de producción en las diferentes tecnologías queseras como control de calidad del proceso de elaboración y de afinado.	Leartiker